

Bi astetan izotz gainean Groenlandian

Juanito Bereziartua eta Imanol Atxega lasarte-oriarrak Groenlandian, Ipar Polotik gutxi gorabehera mila kilometroa, izan ziren maiztaren 4tik 22ra eskiekin izotz gainean 14 eguneko zeharkaldia egiten. /4-5



HURRENGO TXINTXARRIA,
ABUZTUKO OPORREN
AURRETIK AZKENA,
ASTEARTEAN HILAK 28
ARGITARATUKO DUGU

Foru Aldundiak hondakinak kudeatzeko plan berria onartu du

Hondakin Kudeaketa Zentroa eta errauskailua Zubietan jartzea aurreikusten du

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko plana onartu zuen.

Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko diputatuak, Carlos Ormazabalek azaldu zenez, "hondakin plan honek apustu garbia egiten du prebentzioaren, birziklapenaren, konpostajearen eta birziklatu eta konpostatu ezineko hondakin gainerako zatiaren balorizazio energetikoaren alde."

Kudeaketa zentroa

Onartutako dokumentuak lurralde antolaketari buruzko iraunkortasun irizpideak ezar-

tzen ditu eta, aldi berean, etorkizunean hiri hondakin kudeaketa gauzatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak kokatzeko aurreikuspenak egiten ditu.

Honela, Gipuzkoa osoan zehar konpostaje eta ontziak biltzeko instalazioak eta transferentzia estazioak ezarriko dira eta gune nagusia Zubietan egongo da, non Hondakin Kudeaketa Zentroa egongo den.

Kudeaketa zentro nagusi honetan, aurretratatendu biolehorketako eraikina, balorazio energetikoko eraikina, zepen balorazio eraikina eta ingurumenaren interpretazio zentroa eraikitzea aurreikusten du Foru Aldundiak. •



Zubietan Gipuzkoako Hondakin Kudeaketa Zentroa egotea aurreikusten da.

Uda bero-beroa aurtengoa

Aste honetan beroa izan da nagusi. Eguzkiak eta hego haizeak giroa sargori eta temperatura benetan altuak egotea ekarri zuen. Igerileku edo hondartzan egoteko eguraldi aparta.

Argazkian ikusi daitekeen bezala, kaleetako termometroak 45 gradura iritsi ziren asteartean.

Gainera, eguraldi aurreikuspenak ere ez ziren bete. Asteazken arratsaldean eta atzo euria aurreikusia bazeen ere, berriro ere, eguzkia eta beroa izan ziren nagusi.

Astebururako ere, eguraldi ona eman dute eta igandean temperaturak igoko direla gainera. •



GIZARTEA /3

Santa Ana eguna ospatuko da igande honetan

KULTURA /3

**Zero Sette akordeoi orkestraren arrakasta
Pola de Sieron**

KIROLA /6

Maialen Chourraut palista Espainiako txapeldun 8. aldiz



Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK !

**Betiko zerbitzua
gure
aholkularitza
onenarekin**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
e-maila: jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Neure kabuz



Tempus fugit

Urteak aurrera doazen heinean geroz eta gehiago denboran zehar atzera begiratzeko ohitura sendotzen ari zait (zergatik ote?). Horrela, azken igande honetan Brigidarren komentuan egiten ari diren obren zati bat ikusteko aukera zegoela aprobetxatuz, han izan ginen, beste herritar asko bezala, zer edo zer ikusiko ote genuenaren ilusioarekin. Egia esan, leku txikia eta piska bat desaproposa antolatu zen, eta komentuko hormak urrunegi ikusten ziren (gertuagotik ikustea merezi zuen), baina tira ...

Bertan izateak hainbat gogoeta ekarri zizkidan burura. Batetik, gure izeba Pantxikita. Komentu horretan dauden mojen artean adin handiena berak du (Lasarte-Orian jaio eta bizi diren adin handienekoen artean ere lehenengo postuetan izango da zalantza izpirik gabe) eta dagoeneko 67 urte igaro ditu bertan (beste inork baino gehiago). Ez dira nolana nahiko markak, bere fedearen pausak jarraituz...

Bestetik, Lasarte-Oria herria jasaten ari den aldeketa. Norantz goaz? Duela urte batzuk gure izebak esan zigun berak ezagututako Lasarte-Oriak ikaragarriko aldaketak jasan zituela (bera komentutik ez zen ateratzen). Jakin nahiko nuke gaur gure izebak Lasarte-Oria osoa ikusiko balu zer pentsatuko lukeen.

Beno, besterik ez... lerro hauek idazten ari naizen bitartean oporren usaia iristen ari zait nire ingurura. Urte osoan begi onez espero dugun garaia gure aurrean daukagu. Opor ederrak igaro, denetarik egiteko aprobetxatu (ikasleei sarritan esan ohi diedan bezala) eta bueltarako indar nahikoak izan ditzauela opa dizuet bihotzez.

Iñaki Erauskín

Zorion-agurrak



Aitana

Zorionak marimatraka! Hiru marrubizko muxu goxo eta familiarekin pasa ondo.




Larraitx

Zorionak eta ondo pasa. Despedidarako mozorroa prest dugu!



Irantzu

Zorionak Irantzu! 5 muxu handi zure urtebetetzean etxeko guztien partetik



Oihane

Zorionak maitea zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat denon partetik.



Bakartxo eta Sara

Zorionak zuen urtebetetzean. Oso ondo pasa eta afaria zuen kontu. Marian, Koro eta Cristinan partetik. Zintzo ibili!



Unai

12 muxu handi. Oso ondo pasa zure lagunekin. Aitonak, izeba-osaba, Haizea eta Ane Miren.



Ane

Zorionak papina! Txokomarrubizko 9 urte, oso ondo pasa! Aitaxto, amatxo eta Nerea.



Isaak

Zorionak Isaak! Urte bat!! Zure gurasoen partetik.



Julen

Zorionak eta muxu handia aitona-amonak eta izeba-osabaren partetik.



Andres

Zorionak aitona!!! Xabier, Gaizka eta familia guztiaren partetik.



Ane

Lau muxu eta ondo pasa familiaren partetik.



Oier

Zorionak pitxitxi! Azukrezko muxu pilo bat zure familiaren partetik.



Ximon

Ximon txipiron 22-an jan zak bonbon eta pozpozik eon.



Katixa

Zorionak gure pirata handiari! Altxorra bilatuz gero... lau muxu potolo daude! Aita, ama eta Arian.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Etxebizitza alokatzen da, Sasoe-ta azoan. 3 logela, sala eta igogailuarekin. Tel.: 661 396299.

• Gela bat alokatzen da Lasarte-Orian, zentroan. Tel.: 666 607 447.

Salerosketak

• 5 laguntzako Daewoo Matiz autoa salgai. Estrenatzeko, lehiaketa batean eskurtua, garrantia ofizialekin. Lehen bailehen saldu nahi da. Tel.: 943 365476 / 659 021945.

• Salgai haurra eramateko kotxea eta aukia. Jane Nomad markakoa da. Egoera onean. Tel.: 687 965454.

• Salgai gas-frijigailu industrialak. Refugas markakoa; 63 zm. x 40. Erabilgarriak: 43 x 28 zm. Salneurria: 250 euro, negoziagarriak. Tel.: 943 371 902, 648 833 472 eta 676 742 860.

• Salgai Maria bainuko gas-aparatu osagarriekin. Refugas markakoa; 56 zm. x 32. Salneurria: 250 euro, negoziagarriak. Tel.: 943 371 902, 648 833 472 eta 676 742 860.

• Michelin energy 256515H motako 4 gurpil eta mercedes markako originalak diren 5 zulodun burdinazko 4 gurpil-hagun salgai. Guztia 200 euro. Tel.: 647 254 082.

• Kotxe bat salgai, Renault Clio 1.6. Oso merke eta oso ondo zaindutakoa. Tel.: 680 985 335.

Lan-eskaintzak

• Irakasle bat behar da lehen hezkuntzako haur bati laguntza esko-

lak emateko. Tel.: 667 808 011.

Lan-eskariak

• Estatu Batuetan 20 urtez bizi izan den irakasleak, ingeleseko klaseak emango lituzke edozein adina eta maila. Tel.: 943 362605 Elena

• Mutil bat eskaintzen da gizon edadetuak zaintzeko, autoen mekaniko bezala aritzeko, base-rietan edo /eta gabiketan lan egiteko. Tel.: 648 785 026.

• Emakume bat eskaintzen da etxeko lanetarako interna edo orduka. Tel.: 943 368574.

• Emakume bat eskaintzen da etxeko lanetarako interna edo orduka eta garbiketa lanetarako. Tel.: 608 098 941.

• Emakume bat eskaintzen da etxeko lanetarako interna edo orduka eta garbiketa lanetarako. Tel.: 630 438 571.

• DBH edo LOGSEko ikasleentzako laguntza ematen dut. Baita gitarrakozko klaseak ere. Tel.: 653 016 344 Mikel.

• Etxe batean interna edo orduka lana egingo nuke. Tel.: 676 188 411.

Bestelakoak

• Altabozak erosiko nituzke. Tel.: 943 362998, Luis.

• Gitarra klaseak hartuko lituzte 12 urteko mutiko batek. Tel.: 615 793 964.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki 4 txintxarri@txintxarri.info www.txintxarri.info

Jaiotzak

Leire Ormazabal Zugarramurdi, uztailearen 19an
Irati Pérez Gonzalez, uztailearen 16an

Izan Jimenez Infante, uztailearen 13an

Heriotzak

Jose Javier Parra Herrero, uztailearen 17an 37 urte zituela.

Guardiak

Ostirala, 17, Acha-Orbea Hipodromo et. 6. Tel.: 943 363549
Larunbata, 18, Acha-Orbea Hipodromo et. 6. Tel.: 943 363549
Igandea, 19, Acha-Orbea Hipodromo et. 6. Tel.: 943 363549

Astelehena, 20, Urbistondo, San Frantzisko 1, Tel.: 943 366567
Asteartea, 21, Gil Kale Nagusia 24, Tel.: 943 361529
Asteazkena, 22, Acha-Orbea Hipodromo et. 6. Tel.: 943 363549
Osteguna, 23, Urbistondo San Frantzisko 1, Tel.: 943 366567

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Santa Ana eguna ospatuko da igandean

■ Okendon lanak direla eta, Parodia Isla plazan antzetzuko da

TXINTXARRI

Igandean Santa Ana eguna dugu eta urtero bezala, Ttakun Kultur Elkarteak egun horretarako ekintzak prestatu ditu.

Ohitura denez, Brigiten Komentuko mezarekin hasiko dira Santa Ana eguneko ospakizunak 11:00etan.

Ondoren, Ttakunek antolatutako luncha dastatu ahaliko da Brigiten plazan eta eguerdian, Santa Ana Karkabaren aurrean agurra dantzatzeko dute Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzariak.

Parodia Isla plazan

Baina eguneko ekitaldirik garrantzitsuenak eta sonatuena gaueko 22:30ean hasiko den Parodia da.

Honetan azken urtean herrian gertatutako kontu garrantzitsuenak errepasatzeko dira, hala nola, krisia, gripe A, Okendoko lanak...

Aurten gidoigintza lanetan Pablo Barrio, Idoia Garzes eta Xabier Arruti aritu dira.

Parodian parte hartuko duten guztiak (berrogei aktore inguru, dantzariak, musikak,...), laurogei lagun inguruk, afari ederraz gozatzeko dute Ederreña elkartearen.

Bapo afaldu ondoren,



Deabrua errausketaren aurka zegoela eta, izako Parodian, akusatuen aurkako epaia ez zen burutu.

21:30ean Andatza plazatik irten eta, Parodia iragarritz, desfilea egingo dute guztiak herriko kaleetan zehar Isla plazaraino.

Hori baita, aurtengo aldaketa nagusia, lekua. Okendo plazan lanak direla eta, aurten Santa Anako Parodia Zumaburuko Isla plazan antzetzuko da.

Omenaldia

Baina antzerkia egin baino lehen, omenaldia egiten da urtero. Aurten 25 urte bete dituen Beltzak Rugby Taldea izango da omendua.

Kirol taldeak urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi burutu ditu aurten eta kirola herrian sustatzeko ahalegin guztiak egiten ari da. Esate

baterako, rugby eskola iraunkorra ezartzeko asmoa dute Ostadarrekin batera.

Omenaldiaren ostean, antzerkia izango da nagusi Isla plazako oholtzan. Santa Ana eta San Joakin, Basajaun, epailea eta abokatuak akusatuei egotzitako karguak entzun eta epaia emango dute. • akusatuek erretzen dituzten!

ENPLEGUA

Udalak 8 pertsona kontratatuko ditu enplegua sustatzeko

Gipuzkoako Foru Aldundia- ren enplegua sustatzeko programa 2009 barruan, Lasarte-Oriako udalak obra eta instalazio publikoak mantentzeko enplegurik gabeko pertsonak kontratatuko dituela jakin arazi du.

Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, 8 pertsona kontratatuko ditu, ahal dela Lasarte-Oriakoak eta enplegurik gabekoak, 6 hilabetez eta lanaldi osoz, 2009ko irailaren 14tik 2010eko martxoaren 13ra.

Udalak eskainiko dituen lanpostuak 1. mailako 2 argiketari; 2 argiketari-laguntzaile; 1. mailako zurgin bat; zurgin-laguntzaile bat; errementari-soldatzaileen laguntzaile bat eta iurgintzako laguntzaile bat dira.

Eskaera egin

Hautaketa prozesuan parte hartzeko, pertsona interesatuek Lasarte-Oriako Udalaren erregistroan aurkeztu beharko dute beren eskaera.

Eskaera orri hori programa horretarako eredu berezia duena izango da eta Udaltzeko erregistroan bertan edo Zerbitzu Sozialetako Departamentuan, abuztuaren 10era arte, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era bitartean jaso ahaliko dute.

Eskaerarekin batera edo hautaketako entrebistaren errentaren aitoparenaren eta langile-denboraren kopia aurkeztuko dute interesatuek.

Lasarte-Oriako Udalak helarazi duenez, eskaeren baremazioa eta hautaketarako entrebistak irailaren 1etik 9ra egingo dira. •

BRIGITARREN ARKUPEA

Udalak herritarrei eskerrak eman dizkie ekimenaren harreragatik

Lerro hauen bitartez, Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak eskerrak eman nahi dizkie igandean, uztailaren 19an, beren interesarengatik Okendo eta Brigitarren komentu arteko arkuak ikustera gerturatu ziren herritarrei.

Aurreko astean aipatu bezala, helburua beti ezkutatuta egon den gunea lasarte-riatarrei ikusteko aukera ematea zen.

Eta Udalaren ustez, ederki lortu da helburua ekimenak harrera bikaina izan baitzuen. •

Zero Sette Orkestraren arrakasta Pola de Sieron

Zero Sette akordeoi orkestra Asturiaseko Pola de Siero herrian eskaini zuen kontzertua igandean. Herriak Karmengo Amaren festak ospatzeko besteak beste, talde lasarteoriatarraren emanaldia antolatu zuen.

Nahiz eta kontzertua eskaintzeko ordu aproposa ez izan, 14:15ak, 500 bat pertsona bildu ziren herriko plazan.

Kontzertua

Goikouriak zuzentzen duen orkestra talde gonbidatua izaki, azken postuan parte hartu zuen Pola de Siero Udaldaren ostean.

Lehenengo aldia zen herrian akordeoi orkestra batek jotzen zuena eta Zero Setteren errepertorio alaia, zartzueta, pasodoblea eta *Guillermo Tell* obraren hasiera, besteak beste, herritarren gustukoa izan zen, nahiz eta obrak murriztu behar izan zituzten.



Berritri ere emanaldi ederrera eskaini zuten Zero Setteko kideek.

Gainera, ohitura den bezala, Elias Goikouriak sorpresatxo bat gordetzen zuen, *Asturias patria querida*. Momentu horretan, ikusleak zutik jarri eta doinuarekin

batera guztiak abestu zuten hunkituta.

Hurrengo urterako gonbita

Txalo zaparradaren ostean, Pola de Sieroko jaien ardura-

dunak Manuel Friegek "Zero Sette akordeoi orkestra herriko auditorio berriaren estreinura gonbidatua dago hurrengo urtean," adierazi zuen guztion harridurarako. •

Kiroletako agenda

ZALDI LASTERKETAK

Igandea 26

94. Zaldi Lasterketa denboraldia

Donostiako Hipodromoan

3. jardunaldia - El Pais

17:30ean - 1. Lasterketa, F.R.B.C. saria, 1.400m.

	Zaldia	Kajoi	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	Aksaray (FR)	3	58	W. Smit	R. Avial	C. Rober
2	Aratan (IRE)	2	58	J. L. Horcajada	M. Delcher S.	C. Miranda S. L.
3	Calamin (IRE)	8	58	O. O. de Urbina	R. López	C. Vadarchi
4	Dream Café (IRE)	5	58	M. Soutou	A. Imaz Ceca	C. Mantul
5	Cervantes	7	56	J. Grosjean	Y. Durepaire	C. Salsaf
6	Danirah (IRE)	9	56	M. Borrego	Y. Durepaire	C. I. R.
7	El Milagro	1	56	J. L. Borrego	M. Alonso	C. Asturias
8	Emperador	6	54	L. I. Salazar	A. Lorenzo	C. Loria
9	Vinuesa	4	52,5	M. Secca	M. Alonso	Y. Godejuela

18:05ean - 2. Lasterketa, Hipodromoko tabernak saria, 1.500m.

	Zaldia	Kajoi	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	El Ultimo Amor (IRE)	3	59	O. O. de Urbina	R. López	C. Vadarchi
2	Persian Dancer (IRE)	10	58,5	J. L. Borrego	F. Rodríguez	Riiza Pazoaki
3	As de Thomas (GB)	4	57	B. Fojas	B. Valenti	C. Tres y Medio
4	Estoy	8	56,5	W. Smit	R. Avial	C. Rober
5	Fathside (IRE)	5	56,5	J. Grosjean	M. Delcher S.	C. Salsaf
6	Españoleto	2	56	J. L. Horcajada	J.P. Espinosa	Y. Militar
7	Hulnick	9	56	J. C. Cerqueira	J. A. Talbot	C. Yanai
8	Espartaco	11	54,5	C. Gnesi	A. Suñen	Y. Militar
9	Mia's Choice (USA)	7	54,5	M. Borrego	Y. Durepaire	Y. Cortijo de Torres
10	Rainbow Rio (IRE)	6	54,5	M. Gómes	Ch. Delcher	C. Magaña
11	Smarty Girl (IRE)	1	54,5	J. Vicuña	C.A. Corrajal	C. Ilusiones

18:40ean - 3. Lasterketa, Ayerdi Bixitxegia saria, 1.400m.

	Zaldia	Kajoi	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	Salpado (FR)	1	59	J. L. Martínez	R. Martín S.	Y. Urdiñ - Orrija
2	Aranel (IRE)	3	58	J. Grosjean	M. Delcher S.	C. Miranda S. L.
3	Doende	4	58	O. O. de Urbina	R. López	C. Vadarchi
4	Dukeside (IRE)	5	57	B. Fojas	Fr. Sánchez	C. Salsaf
5	Shomix (FR)	2	57	M. Borrego	J.M. Borrego	C. San Marcial

19:15ean - 4. Lasterketa, Gaztariaga sagarrotegia saria, 2.200m.

	Zaldia	Kajoi	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	Et Contreout (FR)	7	61	J. L. Borrego	I. Bernat	C. Rio Cubas S. L.
2	Le Courlis (FR)	3	58	O. O. de Urbina	E. León	C. El Swing
3	Ayer Sali (GB)	10	57	M. Borrego	J.M. Osorio	C. Drama Social
4	Ravallera (GER)	5	56	B. Fojas	F. Galdeano R.	C. Inguis
5	Smasher (FR)	2	55	J. L. Horcajada	R. Martín V.	C. Viñas
6	Uraburu	1	54	M. Secca	M. Alonso	C. Emilio
7	Maspalomas (USA)	6	53	J. Grosjean	F. Rodríguez	C. Los Toneles
8	El Chulupalo (FR)	4	53	W. Smit	J.A. Borrego	C. Lezo
9	Born Red (IRE)	8	52	J. L. Martínez	J.C. Fernández	Y. Cortijo

19:50ean - 5. Lasterketa, El Pais saria, 1.400m.

	Zaldia	Kajoi	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	Flying Blue (FR)	4	59	J. L. Martínez	R. Martín S.	Y. Urdiñ - Orrija
2	Clifton (FR)	6	58	O. O. de Urbina	J.M. Borrego	C. San Marcial
3	Schumacher	8	58	J. C. Cerqueira	J.C. Fernández	Y. Cortijo
4	Alternative (GB)	2	57	J. Grosjean	F. Rodríguez	C. Los Toneles
5	Fogoso Marshal (ARG)	3	57	M. Borrego	J.M. Borrego R.	C. Los Intocables
6	Gran Yago (IRE)	7	57	J. L. Borrego	Ch. Delcher	C. Montaña
7	Sideside	9	56	W. Smit	F. Rodríguez	C. Donde Vamos
8	Yepes (IRE)	1	56	B. Fojas	J.C. Rosell	C. Ecu
9	Zacanos (FR)	5	56	J. L. Horcajada	R. Martín S.	C. Edif

20:25ean - 6. Lasterketa, Herri Irratia-Loyola Media saria, 2.200m.

	Zaldia	Kajoi	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	Percus (GB)	2	62	J. Grosjean	F. Rodríguez	Riiza Pazoaki
2	Pompeya (FR)	4	61	C. Fernández	Ch. Delcher	Roberto Cochetoux
3	Canibal	9	61	J. L. Martínez	J.M. Osorio	C. Paciencia
4	Ossava (IRE)	3	61	M. Borrego	Y. Durepaire	Y. Cortijo de Torres
5	Faray (FR)	1	60	M. Secca	E. Puente	C. El Sable
6	Blue Julia (IRE)	7	57	B. Fojas	I. Gómez	Estación Turf
7	Risoul	6	57	S. Robert	A. Imaz Ceca	C. Rio Sello
8	Percus Crack	5	53	J. Vicuña	E. Puente	C. El Sable

Maialen Chourraut Espainiako txapelkun 8. aldiz

Lehenago asteburuan, piraguis-moko Espainiako Slalom txapelketa burutu zen La Seu d'Urgellen. Bertan Maialen Chourraut lasarteoriarrak berriro ere, 8. aldiz, urrezko domina eskuratu zuen bere mailan, K1.

Aurreko asteburuan, berriz, Munduko Kopako lehiaketa hamar onenen artean bukatu zuen, sailkapeneko bederatzigarrena.

Maialenekin harremanetan jarri gara eta bere iritzia eman digu.

Munduko Kopa

Hiru aste eta hiru proba. Pau, Bratislava eta Augsburg-en lehiatu zituen Maialenek Munduko Kopako probak.

"Munduko Kopen aurtengo ranking-ean 9. bukatu dut. Azken bi kompetizioetan ez nintzen batera fin ibili, eta hala ere, munduko 10en onenen artean amaitu dut," esan digu.

"Munduko Kopa gorputza nahiko nekatuta nuela amaitu nuen, hiru aste jarraian, Europan zehar, kompetizioak egiten, fisikoki eta mentalki aste gogorak izan ziren," esan digu eta azken proban gainera sukarrarekin kompetitu behar izan zuela ere aitortu digu.

Espainiako txapelketa

"Espainiako txapelketa Munduko Kopako proben jarraian izan zen. Orduan, espainiako txapelketara oso nekatuta iritsi nintzen," azaldu digu palista lasarteoriarrak.



Espainiako txapelketa eskuratu ostean, iraileko mundiala du orain erronka nagusi.

Baina duen indarra erakutsi zuen Maialenek. "Gainontzeko neskak oso fin ibili ziren eta nik nuen guztia eman behar izan nuen txapelketa irabazi ahal izateko," aipatu digu.

Sailkapenean ahalegin bakarra behar izan zuen finalean sartzeko eta finalean, berriz, bigarren sailkeran egin zuen txapelketa eman zion jaitziera, 01:48,230 denbora eta 108,23 puntu.

Maialen mundialean

Irailean La Seu d'Urgellen jokatu den Mundiala da Maialenen helburu nagusia.

"Orain Seon jokatu den Munduko Txapelketa bakarrik dut buruan. Aste beteko ope-

ralliditoxa pasako dut, gorpuzta pixka bat freskatzeko, eta ondoren buru belarri Munduko Txapelketaren prestaketan murgilduko naiz," adierazi digu Maialenek.

Denboraldi osoa La Seu entrentatzen egon da eta emaitza ona egiteko gogoekin dagoela ere aipatu digu.

"Seon lokala naiz. Aurten urte guztia bertan pasa dut Munduko Txapelketa prestatzen. Oso motibaturik nago, aukera paregabea baita niretzat. Munduko Txapelketaren emaitza ona lortzea nere eskutan dago. Presioa bide onetik eramaten badut emaitza hor izango dela uste dut," aurreratu digu. •

XXVIII. Santa Ana pala txapelketako finala igandean



Etxezarreta eta M. Bardajik izakio bigarren postua ahozteko aukera dute igandean.

Pala gustuko duten herritarrek zorionezko dira. Igande honetan, XXVIII. Santa Ana pala txapelketako finalak jokatu baitira Michelin ondoko frontoian.

18:00etan, kontsolaziofinalean, Jon Begiristain eta Mikel Begiristain bikoteak Alain Etxebeste eta Xenki Astiazaranen aurka lehiatu dira hirugarren postua eskuratzeko.

19:00etan, berriz, txapela jokatu dute, bigarren urtez jarraian, Iñigo Arluziaga-Imanol Bardaji eta Xabier Etxezarreta-Mikel Bardaji bikoteek. Iaz Arluziaga eta I. Bardaji bikoteak irabazi zuen. Ea oraingoan.

Antolatzaileek azaldu duteenez, partiden artean erriren zozketa egingo da eta sari-banaketaren ostean, haurrentzako sorpresak izango dira. •

Egunero

Erakusketa

RAFA ZUBIRIAREN ARGAZKI ERAKUSKETA ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, uztaila osoan.



Erakusketa

MARIA EUGENIA LACRUZ ANSAREN MARGOEN ERAKUSKETA ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, abuztu osoan.

Igandea, 26

Meza eta luntxa

SANTA ANA EGUNEKO meza ospatuko da Brigitarren komentuan goizeko 11:00etan. Ondoren luntxa izango da komentua kanpoaldean. 12:00etan berriz Santa Ana karkaban agurra dantzatuko da.



Santa Ana eguneko parodia

Ohitura legez, SANTA ANA EGUNEKO PARODIA antzetzuko da. Urteko gertakizun garrantzitsuen erreparatu umoretsua egingo da Isla plazako taula gainean. Une atsegina benetan.

IGANDEAN, 22:30EAN
ISLA PLAZAN

Liburutegiko udako ordutegia

UZTAILEAN

Astelehenetan, 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
Asteartetik ostiralera, goizez soilik, 08:00etatik 14:00etara.
Larunbatetan itxita

ABUZTUAN

Manuel Lekuona Kulturetxea itxita egongo da.



Manuel Lekuona kulturetxea

Oharrak

Etixeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etxerategi kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Eskerrak ematea

Oriako Karmengo Amaren jaien antolatzaileek eskerrak eman nahi dituzte lerro hauen bidez beraien laguntzaga emateagatik: eskerrak Lasarte-Oriako Udalarari, Pilar Catalina sopranoari, Amaia Dorronsoro organistari, Urrietako Eburne lore-dendari, Billabonako Solano Trikitilari Eskolari, Ramon Uribeetxeberria, Xabier Andonegi eta Juan Luis Murua apaizei eta Txintxarri aldizkariari.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Zubietako jaiak

24, ostirala

19:00etan, jaien hasiera (buruhandiak, txalaparta...)
21:00etan, herri afaria
Ondoren, Kupela taldearekin dantzaldia.

25, larunbata

09:00etan, esnadeia (Donostiako txistulari banda).
11:00etan, meza nagusia.
11:30etan, hamaiketako.
Ondoren, soka-dantza.
18:00etan, XII. Trikitilaria txapelketa.
Ondoren, buruhandiak.
22:30etan, bertsolariak:
Uxue Alberdi
Unai Muñoa
Iker Zubeldia
Iñigo Manzisidor (Mantxi)
Gai-jartzaile:
Iker Iriarte
00:00etan, Gaueko Itzalak taldearen kontzertua.
Ondoren, Laiotz taldearen emanaldia.

26, igandea

10:00etan, meza.
11:00etan, II. Sagardo Eguna
14:00etan, jubilatuen bazkaria.
16:00etan, mus txapelketa.
17:00etan, Zubietako bikotekako I. Bizikleta lasterketa.
18:00etan, patata tortila lehiaketa.
Ondoren, Ansorregi eta Larrañaga trikitilariekin afal ordurarte erromeria.
22:30etan, Ansorregi eta Larrañaga trikitilarien emanaldia.

27, astelehena

06:00etan, Oilasko biltzaileen irteera.
14:00etan, Oilasko biltzaileen itzulera eta azken dantza.

28, asteartea

10:00etan, Jolasen hasiera.
14:00etan, Haurren bazkaria. (Bazkaria eraman-behar da)
16:00etan, Jolasen jarraipena.
16:00etan, Gorritiren showa.
19:30etan, Txokolata.
Ondoren, Buruhandiak.

Eskutizak

¿A las buenas o a las malas?

Apirilaren 29an, 17:30ean, Lasarte-Oriako Buenos Aires aldapako 17. atariaren parean, ni bizi naizen etxetik ehun metrora, Ertzaintzaren talde batek gelditu ninduen (auzo)-errepideko ohiko kontrol batean.

Laukotea osatzen zuen ertzain-kideetako batek hitz bidea eman zidan, gaztelaniaz: "Buenas tardes, este es un control rutinario de tráfico...".

Nik berarekin euskaraz aritu nahi nuela eta, ezinezkoa zela zirudienez, zerbizua euskaraz emango zidan norbait eskatu nion, jator. Berak, berriz ere, ez zekiela erantzun zidan. Nik gauza bera errepikatu nion eta ertzain taldeko arduradunarengana joan zen.

Handik gutxira, arduraduna etorri zitzaidan "¿Con que con esas estamos!" esanez. Nik, hari ere, euskaraz esan

nion aurrekoari esan nion gauza bera: administrazioarekin, Ertzaintzarekin, haremana euskaraz nahi nuela. Hark, ordea, "¿Qué quieres, a las buenas o a las malas?" erantzun zidan.

Handik aurrera, nirekin batera autoan zihoazen bi alaben beldurra tarteko, ertzainak (gaztelaniaz) eskatu zizkidan paperak eman egin nizkion.

Paperak aztertzen ari zen bitartean, alabengan jarri nuen arreta eta biak zeuden zurbil. Txikiena (6 urtekoa), isilik. Zaharrena (8 urtekoa), berriz, barruan zituen galderari eutsi ezinik: "aita! Zergatik damaki pistola? (...) Aita! Zergatik esan du gizon horrek hori? (...) Aita! Eta berak zergatik ez daki euskeraz hitz egiten? (...) Eta zergatik ez du ikasi? (...) Aita! Alkateak errita egingo dio, ezta? (...) Aita! Eusko Jaurlaritzaren euskeraz da, ezta?..."

Aste batzuk pasa dira eta amorrua goxatu zait pixka

bat. Nire buruaz, pittin bat bada ere, barre egitea ere lortu dut: TELPeKo (Taller de l'Espai Lingüístic Personal) ikastaroak jaso (eman ere bai bateren bat), antzeko hizkuntza-egoerei asertibotasunez aurre egiteko teknikak langai izan... eta gero hau! Nire asertibitate-maila linguistikoa ere topatu du bere inkompetentzia-maila...

Geroztik, herritar ardurasu gisara, gure hizkuntza-kexetarako bulegoetako izapideak ere bideratu ditut Behatokia eta Elebiden.

Familian ere hitz egin dugu gaiaz nire alaben zirtasun linguistikoa erasanda gera ez dadin. Harrigarria izan da beraiantzat hizkuntza-jardun normala denagatik (euskaraz egiteagatik, alegia) pairatutako beldurrezko esperientzia.

Amorregarria izan da niretzat tratatu hori norengandik eta, zerbitzu on bat emateko familiak zergak ordaintzen dizkion adminis-

trazioetako batengandik jasotzea.

Tristeena, ordea, zera irudindun hark esperientzia hartatik ezer hausnartzekorik ez zuela aterako, seguruenik (ezin dut nire uestea berretsi geroztik ez baitiot galdetu "con esas" hark zer esanahi ote duen beretzat). Are gehiago, uste dut ni errespeturik gabeko burugogor (fundamentalista?) linguistiko bat, edo antzeko zerbait, nintzela esanez bukatuko zutela ertzain-kideen arteko elkarrietzak (agian ez?).

Eta hurrengoan, zer? Alabarik gabe baldin banoa, "A las buenas" euskaraz zerbiztatuko nauen norbait ekarri arte planto egitea pentsatuta daukat. Eta inor ekartzen ez bada, berriz, berak erabaki dezala "a las malas" horrek zer esan nahi duen.

Iñaki Arruti
Lasarte-Oriako Udaleko
euskara teknikaria

‘Erretratugintzan hasi nahi duen *Figura*’

■ Juan Carrillok, inoiz ez du profesionalki marrazki eta margoetatik jaterik pentsatu baina bizitzak horretara eraman du. ■ Edozein material eta euskarritan lan egiteko prest dago.

Juan Carrillo deitzen da, baina denek "Figura" deitzen diote. Lasarte-oriarrak beti izan du marraztu eta margotzea gustuko, baina langabezian dagoenez erretratu eta margo-lanak egitetik bizi nahi du. Orain arte oparitu egiten zituen lanak, orain bere ogibide bihurtu nahi du. Afizioa ofizio bilakatu. Ahoz aho ari da zer egiten duen jakinarazten eta momentuz egin ditu lanen batzuk.

JON ALTUNA

Pertsonen aurpegi edo erretratuak egiten ditu, potretak, nahi den edo aukeran duen materiala erabiliz. Izan daitezke, klera edo klariona, ikatz ziriak eta emakumeek begiak edo ezpainak perfilatzeko erabiltzen dituzten arkatzak. Baina baita olio-pinturak, tenperak eta beste edozein eratako margoak koloretako irudiak egiteko.

Eta edozer marrazteko-margotzeko prest dago, aurpegiak, erretratuak, muralak,... Txiki txikitik margotzen du eta orain arte ere denetarik egin du. Bere hainbat marrazki eta margo daude munduan zehar barreiatuak. Egurra ere lantzen du, eskulturaren bat, irudi txikiak, makilak,... egin ditu. Bestalde, kristalezko edalontzietan marrazkiak grabatzen ditu diamantezko tresna bat erabiliz. Tabernarientzat egin ditu edalontzi berezitu horiek.

Azken hamarkadatan denetarik egin du: Desorden musika taldearen lehen maketaren portada eta Oi! izena zuen fanzinearena ere bai. Edo liburuen orrialdea markatzeko erabiltzen diren orrialde-marka edo bookmarks delakoak ere egiten ditu sendagileek eztarria begiratzeko erabiltzen dituzten makilakoe-kin, mingaina zapaltzeko egur horiek landuz. Gero itzalak edo koloreak ematen dizkie.

Erretratu bat egiteko eskatzen diotenean, argazkia erabiltzen du normalean: "Erosotasunarengatik da, denbora behar dut eta hobe da, hainbeste denboran pertsona bat geldi edukitzea baino, argazki batetik egitea".

"Lan bat egiteko zenbat denbora behar duzun? Hori lanaren eta norberaren aldarteren araberako da. Ez zait nire buruari presa sartzea gustatzen, askotan, presaka arituz gero, arte lana izorratu egiten dut eta. Bere denbora utzi behar zaio. Horregatik, lanen bat urtebetetzeren baterako denean aurretik denborarekin emateko eskatzen dut" kontatu digu "Piurak".

Marraztu eta margotzetik bizitzea erabaki zuenetik pasa diren sei bat hilabete hauetan, ez du lan askorik izan. Agindu batzuen zain da, ordea. "Lehen erretratuak oparitu egiten nitue- nean jende askok eskatzen zizkidan. Orain ia inork ere ez".

Margo lanak opari

Bere marrazki eta margoak leku askotan daudela dio "bat Venezuelan dago, bulegoetan, dendatan, tabernetan,... Zerbait egin eta ez naiz sekula berarekin geratu, beti oparitu izan ditut". Bere lanak dituztenei esaten die ondo gordetzeko lan horiek, bera hil eta gero asko balioko dutela eta. Bien bitartean, ez du lan bakoitzeko askorik eskatzen. Materialaren eta lanaren arabera, baina gutxi gorabehera 200 bat euro zuri beltzean egiten dituen lanengatik, eta 300etik gora, koloretan egindakoengatik. "Badira material batzuk garestiagoak eta horiek ere salneurria aldatzen dute".

Juan itxaropentsu da eta gogor heldu dio zereginari. "Pobrea izan naiz beti eta edozerekin baliatzen ikasi dut. Edozein leku edo euskarri-



tan eta edozerekin marraztu-margotu daiteke. Kafe ale batekin ere margotu daiteke".

Eraikuntza lanetan aritu da beti, zuloak egiten. Batzuetan lehergaiekin ere bai. Orain osasunez ez da oso indartsu ikusten, nahiko baldartuta sentitzen da 43 urterekin eta erretratugintzan murgiltzea erabaki du. Ahaletin bat egingo du eta itxaropentsu da. Zerbait egin beharra du bizitzeko, seme-alabak jada kokortuta baditu ere.

Ikasketak

Andoaingo Lasalle ikastetxean ikasi zuen eta han izan zuen lehenengo aukera laminak margotzen zuen trebezia erakusteko. Gero delineatzen ikastea erabaki eta ikasturte bat aritu zen. Utzi eta ondoren Arte eta Dekorazioa hasi zuen akademia batean. "Jarraitu banu, Bilbo edo Bartzelonara joan beharko nuke. Marraztu behar zenean ondo moldatzen nintzen, baina ukalondoak iltzatu behar zirenean gaizki. Ikasturte eta erdi egin eta utzi nuen."

Donostian pintura irakasle partikularra izan zuen, Kontxita Mato, "tapizeak egiten, modelatzen, margotzen, koloreak nahastean, artearen hainbat arlo erakutsi zizkidan". Egurrarekin edo igeltsuarekin eskulturak ere egin izan ditu eta pare bat erloju ere bai. "Gauza asko nire kontura ikasi ditut, egurra edo metalak lantzen, igeltzua zizelkatzen edo kristala grabatzen esaterako". Animaliak ere egin ditu, behin zakur bat margotu egin zuen, makila baten heldulekuan zizelkatu eta edalontzi baten kristalean grabatu.

Bere itxurarengatik umeei hasieran beldur apur bat eragiten diela aitortu digu, baina gero papera eta boligrafia hartu eta marrazkiak egiten hasten bada, jada ez direla berarekin aspertzen. Berak alde egin behar izaten omen du. •

Juan Carrillok betidanik marraztu eta margotu du. Esku ona duenik ez dago ukatzerik. Herriko pertsonak dira marraztu dituenak, askok ezagutuko dituzue. Eta edozein erretratu ala beste edozein arte-lan egiteko prest dago, diru apur baten truke. Bere telefono zenbakia **600 788 459** da.

